

# TXOTX BATEN ITZALPEAN

Gose itzela pairatu zuten prisioneroek, ohikoak baitziren haragi edo lekale gutxi zuten urez betetako lapikoak. Janaria lortzea buruhaustea bihurtu zela eta, estrategia desberdinak erabili behar zituzten horri aurre egiteko: etxeetan edo baratzeetan egindako lapurretak, mantak eta botak janariaren truke aldatzea, familiarren eta herrikoen laguntza jasotzea edota gauean zehar arrisku handiko ihesaldiak egitea.

Kanpin-dendak, hutsik zeuden etxeak, eta batez ere barrakoiak izan ziren gatibuentzako ostatu, Pirinioetako neguko gauetan hotza lagun izan zutelarik. Prisioneroen pilaketak zein garbitasun faltak zorriak, arkakusoak eta hazteria agertzea erraztu zuten.

Elikaduran eta ostatuan izandako gabeziak, lanaren gogortasunarekin batera, etsipena, ahulezia eta gaixotasunen eragileak izan ziren, prisionero batzuk heriotzaraino eramane arte.



BDS1 14ko barrakoiak, Lesakan, 1941  
Laguntza: Roger Santolucena, prisioneroa



Igariko barrakoiak, 1941  
Laguntza: Xabier Santa Maria Amoreteko familia, prisioneroa



**Andrés Millán**  
(BDS1 6, Huéscar, Granada)

Barrakoiak harrizko paretak zuten, egurrezko taulak eta zenbait zirrikitu oholak sartu ahal izateko. Bi pisu zituzten lo egiteko eta txapazko sabaia zuten. Baina elurra ari zuenean, haizeak elurra manten artean sartzen zigan, eta horrela eusten zenien, burua manten azpian, arnasa hartuz txorilarreek bezala, berotzeko.

## Testigantzak



**José Barajas**  
(BDS1 6, Huelma, Jaén)

Behin teniente batek ikusi eta ze zerriak ginen esan zigun! Eta ibaira garbitzera eramateko agindua eman zuen. Arro-

pa erantzi, izotza apurtu eta uretan sartzera behartu gintuen. Sartu nahi ez zuenari platerarekin botatzen zioten ura.

Iurria: *Autobiografía*. Asociación per a la Memória Histórica i Democrática del Baix Llobregat. 2007



**Antonio Viedma**  
(BDS1 6, Gálera, Granada)

Eta lapikora hezurak baino ez ziren botatzen. Eta ez zegoen denontzako hezurrik, horietako bat harapatuz gero... Behin gertatu zen, batek hezurra hortzikatu... gero bota, eta beste batek hezur bera hartu hortzikatzen jarraitzeko, gose handia zegoen eta (...) Antoniok, "el Tortas", bere amari idazten ari zitzaioela, halaxe esaten zion, "ama, hemen gorriak pasatzen ari gara, horrela jarraituz gero txotx baten azpian hartu beharko dugu itzala", eta barre egiten genuen, eta halaxe esaten genion, "motel, zertarako bidaltzen diozu hori zure amari?"



**Francisco Alonso**  
(BDS1 38, Sestao, Bizkaia)

Bazegoen Ortuellako mutil bat, Iruñera bidali zutena zorabiatzen zelako, lanera joan eta zorabiatu egiten zen. (...) Egun batean errepidean zegoen eta ofizial bat pasatu zen, eta Zangozara eramateko agindu zuen, mediku batek ikus zezan. Handik Iruñera bidali zuten, pisatu, ohean sartu eta hurrengo egunean hilda zegoen.



Heriotzaren jakinarazpena  
Barrakoi Antonio Gernero Millán eta Gueñotzajara, BDS1, C. 1533. I.H.C.M. M. de Delesosa

## ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

2. Egur asko, ogi gutxi!

